

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalbatzaren 2020ko maiatzaren 29ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita kirol elkarte, talde eta klubei dirulaguntzak emateko, 2020an jarduerak egin ditzaten

BDNS (identifikatzailea): 508337

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerrri horretan eginik, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Halaber, Iruña Okako Udalerriko Elkartearen Erregistroan erregistratuta eta eguneratuta egon beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Erakunde hauek: administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde, elkarte eta klubak, kirol xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

2. Hauek ez dira onuradun izango:

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeretako batean daudenak.

- Eusko Legebiltzarraren Emakume Eta Gizonen Arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakume Eta Gizonen Arteko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen dituen kasuetan dauden entitateak.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere elkarte eta entitateek 2020. urtean Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerrientzat interesgarri jotzen ahal direnak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2020ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez onartutakoak. Udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzak emango dira programaren kostuaren arabera eta programa partez ordaintzeko dituen baliabideen arabera; garrantzitsua da, eta kontuan izan behar da, sustatzaileak bere baliabideak sortu ahal baditu edo beste administrazio publiko batzuetatik eskuratu ahal baditu.

Dena den, udalak bere interesekoak diren programa jakin batzuk modu berezian izapidetu ahal izango ditu, eta zenbait baldintza ezarriko ditu horiek aurreikusitako moduan gauzatzeko direla bermatzeko.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da inolaz ere 20.000 euro baino gehiago izan; kopuru hori 341.434.000 partidatik ordainduko da.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezingo da izan inoiz jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak eta justifikazioa, zazpigarren oinarrian aipatzen diren agiriekin batera, 2020ko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Iruña Oka, 2020ko maiatzaren 29a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SÁNCHEZ